

# Ezkontza

Karen Bies

bestehitzak oarewurden  
||| | | ||| | |



Itzulpena: Ibai Sarasua García



# Ezkontza

## **Igande goiza, apirilaren 8a**

Ids nire alboan dago etzanda, oraindik lo. Bart gauetik gaude elkarrekin. Hirugarren aldia zen The Rose-n topo egiten genuela, eskolatik ezagutzen genuen jendea (Noel eta Jane) eta ohiko zenbait musikari jotzen ari ziren lekuan. The Rose-ko pianoa zaharra da, baina afinatuta dago oraindik ere, eta, horregatik, Idsek hura jotzen eman zuen gau osoa. Brendanek galdetu zidan *Galway Shawl* abestu nahi ote nuen, eta beranduago Christina A.-ren *Beautifulen* bertsio bat egin nuen, Janekin batera. Askatzailea izan zen. Abesteak lagundu egin zuen, pianoak egindako soinuekin eta Ids han zegoela jakitearekin batera.

Luze egon ginen kanpoan, elkar musukatzen, eta etxera galdetu gabe lagundu zidan. Urtebetetzetik gelditzen zitzaidan azken ardo beltz botila edan genuen. Ids nire ondoan etzan zen, burua nire magalean. Ederki ematen du musu, eta haren pianista eskuak leunak eta indartsuak dira aldi berean. Apur bat moxkor nengoen, baina ez egindakoaz ahazteko bezain mozkor, e?

Ids. Ids, espero dut. Mesedez, MESEDEZ. Eguneroko maitea, hau idatzi dut neure buruari ziurtatzeko egiazkoa dela. Musu.

## **Osteguna, apirilaren 12a.**

Soineko bat topatu beharra dago, eta haiekin joan behar nuen. Pss. Azterketak dauzkat hurrengo astean, baina ama tradiziozale amorratua da, eta ezin izan nuen saihestu. Nahiago zukeen amona eraman izan balu, baina ezinezkoa da dagoeneko. Beraz, hantxe geunden ezkontzako soinekoen dendan hirurok, ama, izeba Nora eta neu. Bi dendari ere bai, besoan kutuna zuen bat eta ilehori bat. Ama soinekoak probatzen hasi zen Nora eta biok chesterfield gorrietan eserita geundela (horrela esaten zien amak besaulki bigunei), eta tea eskaini ziguten.

Ingurura begiratu nuen, ezkontza soinekoen denda tipiko bat zen, ezkontza soinekoz eta bururik gabeko emakumez beteta. Mahai gaineko loreak ukitu nituen. Ezkontzea horrelakoa bada, ez dut ezer jakin nahi, hori badakit.

Ama probagelatik irten zen eta Nora negarrez hasi zen berehala, nola ez.

–Ooooo –egin zuen aiene–. Ederra da, Grace.

Laguntzaileak ere lausengutan hasi ziren. Suminaldi emozionalekin ohitu askoak egongo ziren, ziurrenik. Nik mutu jarraitu nuen.

Ama gure parean zegoen, solariumetik beltzaran, eta zuriak zuriago ematen zuen. Soinekoak dandar labur bat zuen, eta eguzkipean elurrez estalita dagoen mendi batek bezala distiratzten zuen.

Dena den, behe aldean soberan zegoen oihala falta zitzaion gerritik gora, amaren bularrak ez baitziren ondo sartzen soinekoan.

–Ondo al daukazu? –galdetu nuen.

–Ez kezkatu, ondo izango du –esan zuen kutundunak, eta soinekoari tiraka hasi zen, amaren neurriak hartzeko. Amak ispilutik irribarre egin eta harrituta begiratu zidan, nire babesa nahiko balu bezala, soinekoarekin, Kieranekin. Ondo, ama, ez naiz oso negatiboa izango, ez dizut eguna zapuztu nahi.

Amak beste bi soineko probatu zituen, baina lehena hartu zuen azkenean. Soinekoarekin bat zetozen zetazko zapatak eta, noski, bularretakoa hartu zituen. Ilehortiaren arabera, «bularrak nabarmenduko eta, aldi berean, babestuko zituen». Sutsuegi dantzatzetik edo horrelako zerbaitekin esan nahiko zuen. Laguntzaile ilehortiak txapel moduko bat eman zion amari, «buruko», esan zion. Eta horrekin, jantzia osorik zegoen.

Izeba Norak ama lepotik besarkatu zuen. Biak hasi ziren negarrez. Horrek, noski, niri ere negar eginarazi zidan, eguneroko maitea, zure Ruby gogorra bai, baina ez baita harrizkoa. Amak eskua eskaini zidan.

–Etorri hona, txiki.

Harengana inguratu nintzen. Haren gorputzak gogortasun bitxi bat zuen, Hermès usaina zerion. Handik pixka batera, amak askatu egin gintuen eta esan zidan:

–Ea ba. Zure txanda da orain.

### **Ostirala, apirilaren 13a**

Arrosa iluna aukeratu genuen azkenean. –Ederra –esan zuten Norak eta amak–, zure ile gorriarekin bat dator.

Bira eman nuen ispiluaren aurrean eta Kate edo Pippa printzesak bezalakoa sentitu nintzen. Ruby printzesa! Orduan entzun nuen Kieranen arrebeak soineko berbera jantziko zutela.

–Hiru zerri arrosa emango dugu –esan nion amari.

Tematu egin zen ordea, oso ondo geldituko zelako «osotasunean». Kieranek traje grisa jantziko du, gorbata arrosarekin.

Uste dut ezin okerragoa izango dela. Antzerki hutsa! Amaren eguna izan behar du, ordea. Ez da bere bizitzako egun onena izango, onena ni jaio nintzen eguna izan baitzen (hala esaten zuen sarri txikia nintzenean).

Jakin dezazun, Kieran!

## Larunbata, apirilaren 14a

Asteburuan, Ids gurekin etorri zen Hollyrockera. Gonbidatuen gelan egin zuen lo. O'Reilly's pubean sartu ginenean, trakets eta harro sentitu nintzen aldi berean. Trakets, bota berriak nituelako. Harro, nire Ids garai eta ilunaz, bertakoa ez, garbi zegoen. Zorionez, hark ere garagardoa besterik ez du edaten.

Izeba Noraren alaba –Tara– ere bertan zegoen. Tabernan zegoen, bi gizonen artean. Haren kizkurrek diz-diz egiten zutela zirudien, besteen gainetik zebilela bere takoi finekin. Neure buruari galdetu nion ez ote zuen minik izango oinetan, nahiz eta Pete O'Donoghuek, kirol arrantzako dendakoak, helduta izan zuen etengabe. Ni baino bi urte zaharragoa da Tara, Dublinen bizi da, eta oso bizitza interesgarria izango du, nire ustez. Gugana etorri zen, kulunkan.

–Ei, Ruby, zer moduz? –galdetu zidan. Elkar aurkeztu nituen.

–Nire lehengusua, Tara... Nire laguna, Ids. Herbehereetakoa da. Barrez hasi zen.

–Hitz? Zein hitz?

Idsek irribarre egin zuen, abegitsu, eta esan zuen:

–Ni naiz hori.

Tararen begiak piztu egin ziren, baina ez nuen beldurrik. Ea bada, polit hori, saiatu, nirea da eta. Gin-tonicari beste tragoxka bat eman, eta Pete O'Donoghuerengana itzuli zen, binbili-bonbolo.

Ama eta Kieran ere tabernan zeuden, eta amak Idsi esan zion (ezin zintzoago) «bere alabaren laguna bere ezkontzara gonbidatuta zegoela, egun osorako». Egiatan... auzo lotsa! Nola ez, garagardo basoa lurrera bota nuen, eta garbitzeko tartek Idsi guztia pentsatzeko aukera eman zion. Ez da beharrezkoa, ez duzu zertan nahi ez baduzu! Barre egin zuen kizkur ilunen azpian, ordea, eta gustura asko etorriko zela esan zuen.

Kieranek ez zuen besoa amaren ingurutik kendu. Dagoeneko lehen saria irabazi duenaren itxura zuen.

Ai ama! Ids ezkontzara etorriko da, eta ez dakit hori gustuko dudan. Ids Galwayn ez da orain Hollyrocken den bezalakoa. O'Reilly's pubaren ondoren, hondartzarantz abiatu ginen. Itsasbehera zen. Haitzen artean ibili ginen, botek min ematen zidaten, baina ez nuen kexatu nahi. Ez zegoen haizerik, eta kaioak entzun genituen.

Esan nuen:

–Batuetan, ekaitza mendebaldetik datorrenean, itsasoa horrenbeste igotzen da, ura moilara igo eta Shore Roadeko etxeetara sartzen da.

–Hara.

Aurrera jarraitu genuen. Idsek ez zuen askorik esaten, hori amorrazioa! Dena ondo ote zihoan galdetu beharko nuke, ala isilik gelditu? Zure burmuin musikala zoro ote dabil, edo gaur gauean ni musukatzeaz ari zara pentsatzen? Eguneroko maitea, tentsioa igarri nuen denbora guztian, gurekin balebil bezala, gure artean.

Moilara itzuli aurretik, gelditu egin ginen, eta Idsek heldu egin ninduen, eta gorputza ferekatu zidan eskuekin. Berotu egin nintzen, noski. Gartsu musukatu ninduen, eta iletik tira egin zidan.

–Sua duzu barnean!

Bai, eguneroko maitea, horrelaxe hitz egiten du. Abesti batean zuzen-zuzenean erabiltzeko moduko gauzak esaten ditu.

Eta gero:

–Elkar aurkitzeko egin ote genuen topo? Bai, hori ere bai. Maite ditu horrelako txorakeria espiritualak.

Erantzun egin nion:

–Aurkitu nauzu jada. Hauxe naiz ni. Zure Ruby, ez besterik. Ikusten duzuna da dagoena.

Idsek irribarre egin zuen:

–Aurkitu *nahi* al zaitut, baina? Edo Ruby niretzat misterio bat izatea nahi dut?

Eguneroko maitea, nork pentsatzen ditu horrelako gauzak? Zergatik izan behar dut misterio bat? Desiratzen al nau batere? Edo arruntegia naiz harentzat? Gustura utziko nuke nire gogoia ere aske, harekin hodeietaraino eraman nazan.

Beno, hondartzan musu eman besterik ez genuen egin. Horixe guri buruzko guztia. Hala uste dut, behintzat.

## **Igandea, apirilaren 15a**

Kieran pozik dago nire arreta beste batengan jarri dudalako orain, aukera ematen baitio nire radarretik ihes egin eta amarekin aske ibiltzeko. Amaren soinekoa ez du oraindik ikusi. –Izan dadila sorpresa bat. Amak hori esan zionean, besoekin inguratu zuen, eta esan zion ederrena izango zela, bai ala bai. Hau lotsa. Barre txikia egin zuen amak, hain zegoen... hain zegoen urduri eta gogaikarri. Bakarrik uzten ditut horrelakoetan.

Etxea isilik egoten da, amarekin bakarrik. Ez du nahi Kieran etxera bizitzera etortzerik eraztuna atzamarrean izan arte, baina ez dugu sekula aitaz hitz egiten. Ama ez da umorez egoten, eta ezin du pentsatu bere berokuntza ingeniaria ez den beste ezertan. (Orain badaki zer den zirkulazio ponpa bat eta hedapen tanga bat, edo dena delakoa, eta informazio oso garrantzitsua izango balitz bezala aritzen da).

Ezkontzara gonbidatutakoen zerrendak hirurehun izen izango ditu, zuzeneko musika Jukeboxies taldeak jarriko du, eta festak ordu txikietara arte iraungo du. The Waves hotelean izango da, O'Reilly's taberna eta ehorzketa zerbitzuek alokatu dute osorik. Kieranen lehengusuenak dira Hollyrockeko taberna eta ehorzketa negozioa. Iturginak, tabernariak, ehorzleak. O'Reillytarrak herri osoan daude, dirudienez. Kieranek dioenez: «Bizitzan eta heriotzan, eta baita edarian ere, dena jasagarria izan dadin».

Ez dira elizan ezkonduko.

Amaren lehen ezkontza eliza batean izan zen. Azkenean, ikusi zen ez zela lotura bedeinkatua izan, Ron alu horrekin bat egin baitzuen. Hamar urte nituen, baina azkar asko ikasi nuen Ron ez zela ona.

–Ez al duzu lotara joan behar? –esan ohi zuen sofan, patatak eta Fanta eskuan eseri berri nengoela.

Amak hori ere ikusiko zuen, pentsatzen dut. Eguneroko maitea, batzuetan, amak erraz ahazten ditu gauzak. Dena promestu zion, eta amak sinetsi. Bostehun lagun joan ziren gutxienez bolatokiko festa horretara. Orduan ere soineko polit bat jantzi zuen, eta hamar bat kilo argalago zegoen. Dena den, urtebete igaro aurretik Ronek Centrako kutxazainarekin ihes egin zuen. Uste nuen amari ezkontzeko gogo guztiak kenduko zizkiola horrek.

Orain, zortzi urte igaro dira, eta Kieran dugu begi bistan.

Amak O'Reillyren instalazio enpresari deitu zion, berogailua matxuratu zela eta. Bi egun eman genituen hotzaren hotzez dardarka. Mekanikoari atea ireki zion unean, banekien zer gertatuko zen. (Baina amak ez! Beraz, askoz azkarragoa naiz ni.) Amari nola begiratu zion, imajina al dezakezu? Azken hamar urteetan ezagutu zuen lehen emakumea balitz bezala.

–Kieran O'Reilly. Zer moduz?

Hartz hutsa. Eskutzarra eman zion. Niri keinu egin zidan. (Ez dut uste egokia denik inondik ezagutzen ez duzun norbaiti hori egitea, baina orain badakit Kieran horrelakoa dela, traketsa.)

Niri ere 'zer moduz' esan zidan, erreminta kutxa eskuan zuela gure ondotik igaro nahian. Nahiko lan, gure korridore estuan. Amak eskaileretan gora gidatu zuen, hautsitako galdararaino, eta, minutu bat beranduago, behera itzultzean, masailak gori-gori zituen.

Txistuka entzun genuen, ganbaran lanean zebilela. *Grace* jo zuen txistuka, sinetsi al dezakezu? Gero txistu jotzeari utzi eta kantuan hasi zen.

–O Grace, har nazazu besoetan eta iraun dezala une honek...

–Ai ama, ezin al zuen gardenagoa izan? –pentsatu nuen. Gogoan dut oraindik ere haren ahotsaren oihartzuna eskaileretan. Ama barrez ari zen, kafea prestatzen zion bitartean.

Gure etxea berriz berotzen zenean ere, bazuen beste zerbait konpontzeko, garbigailua dardarka zebilen beti eta, ai, erretenek ere ihesak zituzten, nonbait. Ni konturatzera, Kieran gure etxean zen astean behin, eta kaferako atsedenaldiak gero eta luzeagoak ziren.

Urtebete daramate elkarrekin.

Kieranek bere aitaren Bellyfieldseko instalazio enpresa jaso zuen.

–Errotzeko prest nago –esaten zuen, eta amari begiratzen zion, txakur batek bezala. Badakizu. Txakurtxo begiekin. Kieranek labrador itxura du, biguntxo, alai eta handi, beti isatsari eragin eta eragin.

Izeba Norak eta osaba Keithek horrelakoxe txakur bat daukate, beti besteen eskuak miazkatzen dabilena. Ezin eskertuago hitz politekin edo buruko laztanekin. Bota makil bat eta ekarriko dizu.

Kieran beti saiatzen da nirekin atsegina izaten. Tea edo kafea egiten du, eta basoren bat ardo ere jartzen dit asteburuetan etxean nagoenean.



–Zer moduz ikasketak, Ruby? –ausartzen da galdetzen, tarteka, eta batzuetan solfeoaz eta musikaren teoriatz eta konposizioaz hitz egiten diot, harentzat guztiz arrotzak diren gauzez, eta bere txakur begiekin begiratzen dit. Bai, kluxe ederra nirea. Normalean zintzo portatzen naiz, furgoneta gidatzen uzten didalako. Kieranekin ohitu ninteke, halako batean.

### **Ostirala, apirilaren 20a**

Amona Katieren falta sentitzen dut, eguneroko maitea. Zuri dena konta diezazuket, baina amona ere solaskide ona zen. Orain badakit hark ere gauzak ezkututzen zizkidala. Bidali zidan eskutitz batean aitaz hitz egin zidan, baina horrenbeste gauza ez dakizkit... Nolatan utzi gintuen? Nola utzi zuen bere alabatxoa? Nola jakin zuen familiak istripu batean hil zela? Amak ez du horrelakoez hitz egin nahi. Ezkontza kontu honekin guztiarekin, benetan inporta duena ahazten zaio. Maitasuna. Amak zorientasuna nahi du, baina zer arraiogatik ezkondu behar du berriz...? Ez dut ulertzen.

Ontziak garbitzen ari ginela galdetu nion. (Ontzi garbigailua matxuratu egin da; Kieranek eta bere Stillson giltzak konponduko dute hurrengo egunetan, ziurrenik.)

–Ruby, elkar maite dugu. –esan zidan.

Oo. Neurrigabe nazkatu ninduen. Segi galderak egiten.

–Noiz dakizu gizon bat serio dabilela?

–Kieran maitagarria da, eta edozer egingo luke nigatik.

–Bai, ama, hori diozu orain, baina nahikoa da emakume bat okerreko unean agertzea dena aldatu ahal izateko. Nola dakizu egiaz dioen?

–Fida naitekeela sentitzen dut –esan zuen.

Plisti-plasta, mahai tresnak uretara. Horren ziur dago ama bere buruaz eta Kieranek! Nik gogoan ditud, eta amak ere bai, Ronen gezur handiak. Gero eta beranduago zetorren etxera, eta haserre egon ohi zen sofán etzanda. Erosketak egiten zituen, besterik ez, baina hori beste zerbaitegatik egin ohi zuen. Ama ez da Centrara joan ordutik.

Astiro-astiro, katilu bat ur beroaren azpian jarri nuen, eta galdetu nion:

–Baina zergatik utzi zure etxean sartzen?

–Ondo konpontzen garelako. Zer inporta du?

–Ron eta zu ere ondo konpontzen zineten hasieran –esan nuen.

Ez nuen esan behar.

Klank! Amak platerak indar gehiegiz jarri zituen armairuan. Begiratu egin zidan, begiak sutan. Egunkari maitea, AMORRATUTA zegoen.

–Pozik gaude, ez al duzu ikusten? –Eta orduan, bete-betean sartu zen.– Zure aita txerri bat zen! (Egiatan, hori izan zen aitaz esan zuena!)– Eta Ron, are alu handiagoa! Baina orain fidatzeko norbait dut nire bizitzan! Zergatik ez didazu utzi nahi hori edukitzen? Ba al dakizu zein gogorra izan den bizitza nirekin?

Platerak di-da lehortzen eta platerak mahai gainean kolpe batez jartzen ari zen.

Nik ez nuen amaitu, ordea!

–Zoriontsu izatea nahi dut, noski; baina, ama, trantzean zaude orain! Irentsita zauzkate soinekoak, gonbidatuek, janak, zenbat izokin, zenbat txahal. Zure alaba naiz. Zergatik ez didazu entzuten?

–Ruby, zuk zeure bizitza daukazu. Ni zainduko nauen norbait nahi dut. NI!

Krak. Amonaren katilua mila zatitan hautsi zen baldosen kontra.

Oo. Eguneroko maitea... Amak ezin zuen gehiago. Toallatxo botata eta mahai gainean baretu zen. Eskuak lehortu eta besoez inguratu nuen.

Hermès. Un Jardin Sur Le Toit. Ondo, perfumerik ez zuen aldatu, beti bezain usain indartsua zuen. Esku hutsezinen emakumea izan ohi zen, eta orain amona Katieren katilua botata zuen. Ai, amatxo maitea.

### **Osteguna, apirilaren 26a**

Ondo atera zitzaidan Musikaren Historia.

Atzo Ids ikusi nuen, bere taldearekin The Rose-n jotzen. Etxera goiz joan behar izan nuen, Didaktika azterketa zela eta. Ez ninduen ikusi ere egin joka hartu eta joan nintzenean.

Orain ohean etzanda nago, eta haren mezu bat jaso berri dut. «Zure hutsunea sumatzen dut!» eta musuka ari den emoji. Emoji bera erabiltzen dut amarekin edo Janekin, batzuetan. Agian normala dela uste du, edo normala da bere jaioterrian. Ez dut jakin nahi, pikutara Fryslân. Nik Ids desiratzen dut. Maite zaitut, Ids. Idsen maitasuna. Baina ez nago ziur. Rita Ora kantatzen jarraitzen dut. «*Zuri ni maitatzen, ni maitatzen utziko banizu! Esan, zer gertatzen zait?*» Aiaiaiaiai, lo pixka bat egin behar dut.



–Pentsatu nuen horrelako zerbait gertatu zitekeela –esan zuen. –Hurrengo egunetan normal jaten baduzu eta goiz oheratzen bazara, datorren astean soinekoa ederki izango duzu. Bide batez, Kieranek esan zuen nire zerri soineko arrosarekin ederki nengoela.

### **Asteartea, maiatzaren 1a**

Ez dut Didaktika gaitu. Ez nago ziur Musikaren Teoria gaituko dudan. Idsekin ari naiz pentsatzen. Erregulariki idazten diogu elkarri, eta ezkontzara etorriko da ostiralean.

–Egon ziur.

Abestiekin lanpetuta dabilela idazten dit.

–Zuri buruzko kantuak. Bai, bai. Idsek Galwayko neska guztiak bere piano behatz luzeen inguruan ditu kateatuta.

Amak ez zuen afaririk ere prestatu nahi gaur gauean.

–Ama, zuk ere jan beharko zenuke –esan nion–. Pentsa soinekoan!

Solariumak eragin gabeko aurpegi argal eta griseko begi handiek begiratu zidaten, eta, beraz, arraina eta patatak ekarri nituen jateko.

### **Larunbata, 2018ko maiatzaren 5a**

Aurreikusi behar al nuen? Ba al nekien lehendik ere, ustekabea? Egiatan, eguneroko, batzuetan zerbaitetan sinetsi beharra dago. Orain arte ezin ziur jakin...

Ezkontideei harrera egiteko aretoa oihal arrosez apainduta zegoen, eta argiek dirdira egiten zuten oihalaren atzetik. Kuxin arrosa bat, burdel bat eta azukre kotoia zirudien, dena batera. Peluxecko aulkien ondotik igaro nintzen, «aldare» aldera (jatetxeko bi mahai elkartuta, besterik ez ziren, oihal zuri bat gainean zutela). Zapatak alfonbran hondoratzen zitzaizkidan. Kaka, festa hasi gabe zegoen eta zapatilak janzteko desiratzen nengoen. Mahai gainean lore ontzi bat zegoen, plastikozko lirioz eta bertaratu ezin izan zutenen argazkiz beteta. Aitona Matthew eta amona Katie, eta Kieranen amarenak ere bai. Egiatzko kandela batzuk piztuta zeuden, garaiz oroitu nintzen nire poliesterrezko soinekoaz. Ilea ukitu nuen tentuz. Burukoa ondo helduta zegoen. Izeba Norak laka poto erdia hustu zidan gainean eta esan zuen:

–Porlana bezala.

Ezerk ezin zuen gaizki irten.

Begiak erdi itxita jarri eta betile tartetik begiratu nuen. Burbuila erromantiko bat zen, mundu guztiak inuzente eta goxo eta polit eta erakargarri itxura izango luke bertan. Bertan emango zion baiezkoa amak hodiak konpon zitzakeen esku handidun gizon bati. Ziurrenik, ama gau gozoekin eta elkarrekin emandako bizi luze batekin egiten du amets. Harengatik eta etorkizunean duen konfiantzagatik pozik egon beharko nuke. Baina triste nengoen, patua zelatan balego bezala. Ostiko batez kendu nituen takoiak, eta korridoreko eskaileretan gora joan nitzen lasterka.

–Grace! Nora! Non zaudete?

Malkoren bat bota zuen berriz ere, eta makillajea konpondu behar izan zen. Biek hasperen egin zuten ispilu aurrean.

Hollyrockeko biztanle gehienak gonbidatu zituzten burbuila arrosara, eta Kieran bera atean ongietorria ematen ari zitzaien gonbidatu guztiei, banaka-banaka. Aurpegia gorbataren kolore berekoa zuen. Hunkitu egin ninduen horrek.

Deirdre urdin ilunez jantzita zegoen. Tarak takoi altuak jantzita zituen berriz ere, eta gau osoan behatzak minbera izan zitzan opa nion neure artean, baina platino kolorezko ile hori horrekin Marilyn Monroe bezain ederra zirudien argi arrosaren azpian.

Nora aurrean eserita zegoen, mukizapia prest, eta haren burukoaren lumek gorantz egiten zuten; horregatik aldatu zuen lekua haren atzeko emakumeak. Osaba Keithek edana zuen lehen pinta dagoeneko, eta zoriontsu bezain gertuko zirudien.

Ids ez zen azaldu zeremonia hasi zenerako. Kieranen arrebeekin batera joan nintzen amaren eta haren dandarraren atzetik, egin behar nuen moduan. Beno, behin takoietakoa bat alfonbran trabatu zitzaidan... Amatzat nuen eski malda elurtu zuri eder horrek emaztearen zetazko lore sorta mahai gainean utzi zuen. Kieranek uso gris handi bat gogorarazi zidan, lasai eta gose.

Nire zeregina eraztunak ematea zen. Erregistroko ordezkariak egiazko maitasunaz eta fideltasunaz hitz egin zuen. Eraztunen kutxa nire poliesterrezko altzo gainean zegoen, Idsek Galwayn burua jarri zuen lekuan. Non zegoen?

Hau da saboteatzeko nire aukera, pentsatu nuen. Egiaz, eguneroko maitea, ia egin nuen! Eraztunak bota eta aretotik irten, galtzerdi hutsean. Esan nahi dut, Joe hilda dago, eta misterio handi bat da niretzat oraindik. Ron ez zen fidatzekoa, hori ziur.

Kieranek tipo ona dirudi, baina oraindik tentuz hartzen dut. Idsek hemen beharko luke dagoeneko. Pikutara gizon guztiak. Hala ere, esandako unean eman nizkion eraztunak errgistrokoari.

Ai, ama! Kieran belaunikatu egin zitzaidan!!!! Kieranen orain arteko une lotsagarriena izan zen, eguneroko maitea... Beste behin *Grace* kantatu zuen, orain dela urtebete ama erakartzeko abestu zuen kantu bera. Oraingoan, ahots dardartiz:

*–Nire maitasun guztiarekin jartzen dut ezkontza eraztun hau zure atzamarrean.*

Guztiek txalo egin zuten, Kieranek eraztuna amaren atzamarrean jarri zuen eta gartsu musukatu zuen. Bai, horrek burura ekarri zidan berriz Noraren eta Keithen labrador lerdetsuaren irudia. Xanpaina edan genuen. Ofiziala zen, orain programari jarraitu behar nion. Orena opa nien senar-emazteei, eta Kierani esan nion:

–Zaindu ezazu.

–Bai, Ruby maitea, zainduko dut –esan zuen Kieranek. Kokotsa altxa zuen. Konkistadore baten moduan, nire ustez. Orduan besarkada izugarri bat eman zidan.

Kieranen after shavea kanpoan kentzen saiatu nintzen. Tara erretzeko txokoan zegoen zutik, zigarro elektronikoko bat eskuan. Ezpain gorriak, ke laino zuriak, urdanga aurpegia. Eta bai, berehala hartu genituen armak.

–Ei, Ruby, non da zure atzerriko mutil-lagun hura? –barre egin zuen ozen.

Neure buruari eutsi nion.

–Laster iritsiko da –esan nuen.– Musikaria da, eta beste betebeharrak batzuk ere baditu.

Ruby, kuttuna, zer garrantzi zuen hark zer pentsatzen zuen?

Ekitaldia ia amaituta zegoen Ids ate kulunkarrietatik sartu zenerako. Burua berotzen eta ziurrenik gorritzen sumatu nuen. Nigana etorri zen zuzen.

–Kaixo! –esan nuen.

–Kaixo, bihotza –esan zuen, eta ahoan eman zidan musu. Nik ere luze musukatu nuen, xanpainak konfiantza gehiegi emanda. Tararen begiak nabaritzen nituen bizkarrean. Ja! Garbi ikusten ari zara, bera da, nire Fryslânko mutil-lagun eder eta altua.

Ids nire ondoan eseri zen afarian, Tara beste aldean zuela, eta Tararen ondoan Kieranen herriko iloba bat, Michael. Idsi Irlandako ezkontza tradizioen inguruko istorio luze eta txatxu bat kontatu nion, baina bere epeltasuna nabaritzen nuen mahaiaren azpian.

Angusek, Kieranen aitak, topa egin zuen, amari begirik kendu gabe.

–O'Reilly familiara ongiatorririk beroena egin nahi nieke Graceri eta Rubyri! (txaloak) Topa iraganagatik eta etorkizun zoriontsu bategatik! (txaloak) Eta espero dut Gracen eta Kieranen etxea ondo berotuta egotea, goxo-goxo!

Geroko txaloetan, Angus, kulunkari, amarengana makurtu zen musu emateko. Aurrerantz erori zen, ia bularraldera zuzenean.

Garagardo ugari zerbitzatu zen, kandelen argia dardarka. Zerbitzariak galdezka zebiltzan:

–Izokina ala txahala? Izokina ala txahala?

Ezkontza-tarta metro batetik gorakoa zen. Amak eta Kieranek elkarrekin zatitu zuten. Estaldura hautsi egin zen, tarta erdibitu, eta iPhonek argazkiak atera zituzten. Jukeboxies taldeak Ed Sheeran jo zuen.

Dantzaldia ezkontideek ireki zuten. Gracek dandarra kendu zion soinekoari, eroso egoteko. Ikusi nuen Kieranek ezin ziola erritmoari jarraitu.

Horrenbeste gustatzen zait dantza egitea! Idsek, ordea, ez zuen nahi.

–Gero, agian –esan zuen.

Garagardoa edan genuen. Jendea atzera eta aurrera zebilela dantzalekuan, gure aurrean, elkarri estu heldu genion barran. Haren atzetik nenbilen, ez al zuen sumatzen? Gaua luze zihoan, itxaropena nahi nuen, fidatu egin nahi nuen. Hark niri pare bat hitz esatea nahi nuen. Ez Irlandari buruz, ez musikari buruz, guri buruz soilik.

–Nola sentitzen zara? –galdetu nuen.

Idsek barre egin zuen, haren hortzek zuriago ziruditen argi morearen azpian. Ez zuen erantzun, ezpainak nireen aurka estutu zituen. Garagardo gustua hartu nien. Une bat beranduago, buelta eman zuen niri begiratu gabe. Trago bat eta hutsik zuen edalontzia.

–Kanpora joan behar dut unetxo batez, bai? Gero arte.

Ondo da, ez dizut jarraituko. Zer demontre, Ids, bakean utziko zaitut oraingoz. Dantza egin nahi dut!

Angusekin, Keithekin, amarekin dantzatu nuen valsa. Gero Michaelek, ilobak, dantzalekura eramán ninduen arrastaka.

–Zer moduz, Ruby? –galdetu zidan. Garagardo hatsa gure artean zintzilik.

–O, ondo –esan nuen.

–Mutil lagun itxuroso bat ekarri duzu zurekin.

–Bai –esan nuen. –Musikaria da, eta Herbehereetatik dator.

–Interesgarriagoa al da kanpotar batekin?

–Zer esan nahi duzu? –esan nuen.

Michael dantzan hasi zen:

–*Ruby, Ruby, Ruby, Ruby!* –The Kaiser Chiefs, bizitza osoan entzun behar izan dudak kantu hori. Zerbait esan zidan belarrira. Aj, lausengari horietako bat. Indargabetzen ari nintzen, baina estu heldu zidan. Askatu, askatu, mesedez askatu. Biraka jarraitu genuen.

Orduan, baina, esku handi batzuk gerarazi gintuzten. Kieran zen.

–Ei, Michael.

Michaelek zerbait esan nahi izan zuen, baina Kieranek albo batera bultzatu zuen, zakar.

Dantzan aldendu ginen, erritmoz kanpo. Behatzak zapaldu zizkidan.

–Eskerrik asko –esan nion.

–Ez horregatik –erantzun zidan.

Azkenean, dantzatzeaz aspertu nintzen. Idsen bila jardun nintzen, baina ez nuen inon topatu. Gero eta arduratuago nengoela konturatu nintzen. Ama komunean topatu nuen. Besazpietako oihal zuria heze zuen.

–Ba al duzu desodoranterik? –galdetu zidan. Esprai desodorante bat zegoen konketan, edonork erabiltzeko. Askok bota zuen besazpietan eta agur egin zidan.

Non zegoen Ids? Oraindik kanpoan, agian. Berandu zen eta ilun zegoen, terrazako erretzaile taldea mardula zen orain. Emakumeek takoiak kenduta zituzten, eta piknik mahaien gainean eserita zeuden, garagardo edalontzi eta hautsontzi artean. Gizonak haien belaunen aurka bermatuta zeuden. Barrez eta zurrutean ari ziren. Hoteleko lorategi handira joan nintzen, pergolarantz. Errododendroen ondoan ezkutuan zegoen. Lurrak oin azpietan dar-dar egiten zuen, ez zegoen urrutik.

Txikitatik ezagutzen nuen barre ozen hura entzun nuen. Ke laino zuriak gorantz zihoazen. Zalantza egin nuen une batez, eta gelditu egin nintzen. Gero zuhaixkak inguratu nituen. Ikusi nuen lehena haren kizkur beltzak izan ziren, bestearen platinozko ile horitik oso gertu.

–Ei, kaixo –esan nuen.

Biek gora begiratu zuten aldi berean. Tarak begiak itxi zituen, zigarroari zupada bat ematen zion bitartean.



–Ei, kaixo, Ruby. –Idsek barre egin zuen, ilea begi parean zuela. Metalezko mahai gainean eserita zegoen. Garagardo edalontzi bat zuen alboan.  
Tarak takoiak kenduta zituen.

***Karen Bies***